

«MENDIBILEKO JACKPOT JOKOA» sustapenaren legezko oinarriak

1.- ENPRESA ANTOLATZAILEA

Mendibil merkataritza-guneko jabeen erkidegoak (aurrerantzean, MENDIBIL) sustapen bat egiteko asmoa du. Sustapen hori oinarri hauen arabera gauzatuko da.

2.- KANPAINAREN IRAUPENA

Sustapenak 2023ko azaroaren 6tik 21era iraungo du, biak barne. Ezinbestean sustapena atzeratu, aldatu, bertan behera utzi edo errepikatu beharko balitz, sustapena jakinarazteko bitarteko beren bidez jakinaraziko da aldaketa hori, eta sustapenari bezainbesteko publizitatea emango zaio aldaketari.

3.- PARTE HARTZEKO LEGITIMAZIOA

16 urtetik gorako pertsona guztiek parte har dezakete.

Ezingo dute sustapenean parte hartu pertsona hauek:

- Mendibil merkataritza-guneko merkataritza-lokalen jabeek eta/edo maizterrek, ez eta horien titular edo maizter diren merkataritza-sozietateen bazkideek, zuzendariek eta/edo administratzaileek ere.

- Mendibil merkataritza-gunea jabeekideen elkargoko langileek, zuzenean edo zeharka lehiaketa hau antolatzen parte hartu duten pertsona fisiko guztiek edota hura prestatzen eta garatzen parte hartu duten guztiek (agentzia, hornitzaileak, etab.).

Egiaztatzen bada parte-hartzaileetako batek ez dituela oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen edo parte hartzeko eman dituen datuak ez direla egiazkoak edo gaizki bete direla, parte-hartzea baliogabetuko da eta lehiaketatik kanpo geratuko dira automatikoki, sustapen honen bidez emandako sarien gaineko eskubide oro galduta.

4.- LEHIAKETAREN FUNTZIONAMENDUA

Parte hartzeko, QR bat eskaneatu behar da, parte-hartzailea Mendibileko merkataritza-gunearen webgunera bidaliko duena. Bertan, inprimaki bat beharko da izen-abizenak, adina, emaila eta herria adierazita, eta merkataritza-guneko edozein establezimendutan egindako 20 € edo hortik gorako edozein erosketaren datu batzuk sartu behar dira: tiketaren zenbatekoa eta erosketaren establezimenduaren izena. Azkenik, JACKPOTeko tiraldia egin ahalko du.

Tiket bakoitzarekin behin bakarrik parte har daiteke.

Irabazleek email bat jasoko dute, irabazitako saria nola jaso behar duten azaltzeko. Ezinbestekoa da irabazleak, NANA erakustez gain, jokoan parte hartzeko eta saria irabazteko erabili duen erosketa-tiketa ere aurkeztea.

Zozketan izena emanda, parte-hartzaileek oinarri hauetan adierazitakoa ez bairik gabe onartzen eta errespetatzen dutela joko da.

Parte-hartzaileek emandako informazioa eta datu pertsonalak egiazkoak izan beharko dira. Bestela, zozketatik kanpo geratuko dira eta irabazitakoa jasotzeko eskubidea galduko dute.

Prozedura edozein izanik ere, guztiz debekatuta geratzen da proposatutako zozketaren mekanismoak eraldatzea edo eraldatzen saiatzea, batik bat saiakera horien helburua bada emaitzak aldatzea edo bitarteko elektronikoko edo desleial bat erabilita zozketaren baliozkotasuna edo irabazlearen izendapena aldatzea. Baldin eta parte-hartzaile batek iruzurra erabiltzen badu zozketan sartzeko edo itxuraz sari bat irabazteko, esate baterako bilaketa automatizatuta edo algoritmo bat erabilita, edo horretarako Mendibilek webgunean edo oinarri hauetan deskribatutako sistemaz bestelako bat erabiltzen badu, ez zaio saririk emango eta Mendibilen jabetzakoa izaten jarraituko du, Mendibilek parte-hartzailearen kontra har litzakeen bestelako neurrien kalterik gabe.

Era berean, Mendibilek beretzat gordetzen du artikulua hau eta zozketako oinarriak errespetatu direla egiaztatzeko edozein baliabide erabiltzeko aukera, batik bat iruzurrik egiten ez dela bermatzeko, baina ez ditu nahitaez egiaztatu beharko parte-hartze guztiak.

5.- SARIAK

Merkataritza-guneak 4.000 € zozkatuko ditu opari-txarteletan. Guztira, 100 opari-txartel zozkatuko dira, 30 €, 40 € eta 50 €-koak, honela banatuta:

30 €-ko 33 opari-txartel, 990 € guztira.

40 €-ko 34 opari-txartel, 1.360 € guztira.

50 €-ko 33 opari-txartel, 1.650 € guztira.

100 irabazleei 10 €-ko opari-txarteletan emango zaie saria. Opari-txartelean bertan jarriko du zer establezimendutan erabil daitekeen. Erositakoa txartelaren zenbatekoa baino garestiagoa bada, erosleak bien arteko aldea ordaindu beharko du. Ordea, merkeagoa bada, ez da dirurik itzuliko. Txartelak 2023ko abenduaren 15ean iraugiko dira.

IKEA Mendibilek 750 € zozkatuko ditu opari-txarteletan. Guztira, 20 opari-txartel zozkatuko dira, 30 €, 40 € eta 50 €-koak, honela banatuta:

30 €-ko 10 opari-txartel, 300 € guztira.

40 €-ko 5 opari-txartel, 200 € guztira.

50 €-ko 5 opari-txartel, 250 € guztira.

IKEAren opari-txartelak ez dira iraugiko, eta zatika erabil daitezke. Opari-txartelak ezin daitezke trukatu edo itzuli. Opari-txartelen zenbatekoa ezin da ordaintzeke dauden saldoekin konpentsatu (erosketa finantzatuak barne). Ez da eskudirutan ordainduko edo birkargatuko. Horrez gain, ezin da zerbitzuak kontratatzeko erabili edo trukatu. Ezingo da txartel hau erabili eskudirutan ordaintzeko muga berdintzen edo gainditzen duten erosketetan (1.000 €-ko edo hortik gorako eragiketak). Galduz gero, txartelak izengabeak direnez, ez da ordeko txartelik emango. www.ikea.es webgunean kontsultatu daiteke zenbat saldo dagoen erabilgarri, zer ezaugarri dituen txartelak, zer herrialdetan erabil daitekeen eta zeintzuk diren itzulketak egiteko baldintzak eta aukerak. Opari-txartela euroaz bestelako moneta batean ordaintzeko erabiltzen bada, ordainketa dena delako herrialdeko moneta ofizialean kargatuko da, argitaratutako azken indize ofiziala aplikatuta, eta moneta trukatzegatik % 3ko erreklama gehituta. Iberiar penintsulako denda guztietan erabil daitezke, baina ez Kanarrietan, Balearrietan, Ceutan edo Melillan.

BM supermerkatuek 20 €-ko 2 txartel zozkatuko ditu, Mendibileko BM supermerkatuan erabili beharrekoak. Erositakoa txartelaren zenbatekoa baino garestiagoa bada, erosleak bien arteko aldea ordaindu beharko du. Ordea, merkeagoa bada, ez da dirurik itzuliko. Txartelak 2023ko abenduaren 31n iraugiko dira.

Bestalde, honako sari hauek ere zozkatuko dira:

Ariketa fisikoa neurtzeko bi eskumutur, MI Band3 modelokoak

OCINE Mendibil zinemarako 15 sarrera. Zinemarako sarrerak 2023ko abenduaren 31ra arte erabil daitezke, asteleheneetik igandera eta film normaletan; beste formatu batean erabili nahi izanez gero (3D, Atmos...), bezeroak gehigarri bat ordaindu beharko du.

10 menu ertain, WHOOPER edo LONG CHICKEN, Mendibileko BURGER KINGean erabili beharrekoak.

Gainera, 2023ko azaroaren 22a baino lehen parte hartzen duten pertsona guztien artean 200 € zozkatuko ditugu opari-txarteletan.

Zozketa horren irabazleari 10 €-ko 20 opari-txartel emango zaizkio. Opari-txartelean bertan jarriko du zer establezimendutan erabil daitekeen. Erositakoa txartelaren zenbatekoa baino garestiagoa bada, erosleak bien arteko aldea ordaindu beharko du. Ordea, merkeagoa bada, ez da dirurik itzuliko. Txartelak 2023ko abenduaren 15ean iraugiko dira.

Sariak Mendibil merkataritza-guneko establezimenduetan kontsumitzeko dira. Irabazitako sarien harira, irabazleek ezingo dute inolako auzirik hasi, ez balioa eskudirutan eskuratzeko ez aldatzeko edo trukatzeko, edozein arrazoi dela bide. Irabazleak argi eta garbi ezin badu saria erabili, hirugarren bati laga diezaioke, saria onartzeko baldintza berberetan. Edonola ere, saria Mendibilek aurreikusitako moduan erabiliko da.

Ez da onartuko sariaren inguruko erreklamazio edo kexarik Mendibil merkataritza-gunea jabekideen elkartearen aurrean, eta horrek eskubidea gordetzen du saria balio bereko edo handiagoko beste bategatik trukatzeko, irabazleak erantzuteko aukerarik gabe.

Mendibilek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartzen emandako saria erabiltzean gerta daitekeen edozein gorabehera edo kalteri dagokionez, eta irabazleak espresuki onartzen du hori.

6.- IRABAZLEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Diruzko sariak irabazten dituzten bezeroek modu eskusiboan lagatzen dizkiote Mendibili zozketa honetan ateratako argazki eta bideoak erabili, zabaltu, banatu, zuzenean komunikatu, erakutsi eta erreproduzitzeko eskubideak, helburu komertzial, promozional eta/edo kulturalekin edo zilegi den beste edozein helbururekin, eta onartzen dute argazki horiek zuzenean igotzea Mendibil merkataritza-gunearen sare sozialetara. Lagatze hori Espainia guztian izango da balioduna, eta urtebeteko iraupena izango du, saria ematen denetik aurrera zenbatuta. Era berean, baimena ematen diote Mendibil merkataritza-guneko jabekideen erkidegoari argazki horiek Mendibilen webgunean, Facebook kontuan eta Instagram

kontuan argitaratzeko.

7.- DATUEN BABESA

Datuak babesteko araudiarekin bat, emandako datuak Mendibilen jabetzako fitxategi batean sartuko dira. Horren xedea da sustapen hau kudeatzea, bai eta etorkizunena egiten diren sustapen- eta merkataritza-ekintzen inguruko informazioa ematea, edozein bitartekoren bidez (elektronikoa izan zein ez).

Fitxategiaren arduraduna Mendibil merkataritza-guneko jabekideen elkargoa da.

Parte-hartzaileek eskubidea dute datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta tratamenduaren kontra egiteko. Eskubide horiez baliatzeko, idatzi bat bidali behar dute helbide honetara: Arizmendi almirantearen kalea 9, 20302 Irun.

Eskaeran, informazio hau eman beharko da: – Izen-abizenak, NANA edo, dagokionean, enpresaren izena. – Jakinarazpenetarako helbidea. – Baliatu nahi den eskubidea eta eskaera xehatua. – Eskubide hori zer telefono-zenbakiri lotuta baliatu nahi den. Mendibilek konpromisoa hartzen du ematen zaizkion datu pertsonalak sekretupean gordetzeko eta konfidentzialtasunez tratatzeko, bai eta datuak babesteko araudiak (eta, batik bat, Datuak Babesteko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoak) ezartzen dituen antolakuntza eta segurtasuneko neurri teknikoak aplikatzeko.

8.- OINARRIAK ONARTZEA

Sustapen honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek guztiz onartzea. Oinarriak webgunean eta jarriko den postuan kontsultatu ahalko dira. Mendibil merkataritza-guneak beretzat gordetzen du edozein parte-hartzaile modu arrazoituan kanporatzeko, baldin eta iruzurra egiten badu edo sustapen honen funtzionamendu normal eta arauzkoa oztopatzen badu, bai eta sustapen honen ondoriozko edozein gai ebazteko ere.

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarri hauek guztiz onartzea eta edozein gorabehera ebazteko Mendibilen irizpideei men egitea.

9.- LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Sustapen honen oinarriak Espainiako legearen arabekoak dira. Sustapen honetako alderdien arteko edozein argipen, gatazka edo auzi Espainiako legeen arabera erabakiko da, eta parte-hartzaileek espresuki onartzen dute Irungo epaitegien jurisdikzioa, izan lezaketen beste edozein jurisdikziori uko eginik.

10.- PARTE-HARTZAILEEN DATUAK BILTZEN DITUEN FITXATEGI AUTOMATIZATU BATEN SORRERA

Sustapen honetan, deskribatutako funtzionamenduaren bidez, lehiaketan parte hartu duten bezeroen datu-base bat osatuko da. Mendibil merkataritza-guneak erabili ahalko du, barneko kontuetarako edo etorkizunean egiten diren sustapen-ekimenetarako, salbu eta, indarreko legediarekin bat, kontsumitzaileak adierazten badu ez duela Mendibilek etorkizunean egiten dituen sustapen-ekimenen berri izan nahi jabekideen elkargoaren bitartez. Edonola ere, bermatu egiten da datu pertsonalak tratatzean osoki beteko dela 3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datuak Babesteari buruzkoa, bai eta gainerako lege guztiak ere, batik bat parte-hartzaileak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu, ezereztu edo horien aurka egiteko eskubideak gauzatzeari dagokionez.

Datuetara sartu, horiek zuzendu edo ezereztu eta horien aurka egiteko eskubideak gauzatzeko, idatzizko eskaera bat bidali beharko da helbide honetara: Mendibil Merkataritza Gunea, Arizmendi almirantearen kalea 9, 20302; idatzian eskatzailearen izen-abizenak adierazi eta NANaren fotokopia bat erantsi beharko da.

Sustapen honen irabazleen datuak, sariak legez ezarritako balioa gainditzen duenean, IRABAZLEAK izeneko fitxategira sartuko dira, kopuru jakin bat gainditzen duten sariak ematearen ondoriozko legezko betebeharrak betetze aldera (PFEZ aitopena, organismo ofizialei jakinaraztea...).